

ALKATEAREN ERABAKIA

GAIA: BAILARA eta UDALAREN arteko HITZARMENA

ESPEDIENTEA: 2026MDIR0003

INTERESDUNA: BAILARA INDUSTRIAL NETWORK ENPRESA ELKAR (IFK: G44772226)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 3.000 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du BAILARA INDUSTRIAL NETWORK ENPRESA ELKAR-ren alde, 2026. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta BAILARA INDUSTRIAL NETWORK ENPRESA ELKAR-ren (IFK: G44772226) artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA.

BIGARRENA.- BAILARA INDUSTRIAL NETWORK ENPRESA ELKAR-ri 3.000 euroko dirulaguntza ematea Elkarteak 2026 urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

HIRUGARRENA.- Hitzarmenaren zortzigarren klausulan jasotakoaren arabera, dirulaguntzaren %60 ordaintzea hitzarmena sinatu eta arloko teknikariak ordainketa proposamena egin ondoren.

LAUGARRENA.- 3.000 euroko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 1 0100.481.422.00.01 partidari egozte.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026MDIR0003-Alkate erabakia/Resolución (BAILARA INDUSTRIAL NETWORK ENPRES/

Digitalki sinatua:



EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA

Alkatea

Data: 2026/06/18 16:05:24